# DEBA BERRI

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba



## AMILLAGA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIA
## PLAN ESPECIAL DE REFORMA DE AMILLAGA

Uztaila-Julio 2018 • 10. zenbakia

DEBAKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala
Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.
Ale kopurua/Ejemplares: 2500
L.G./D.L.: SS-918-2012

# AURKIBIDEA - ÍNDICE

- Sarrera / Introducción 3

- Hobekuntza lanak / Obras de mejora 4

- Amaitu dituzte Astillero eta Osioko urbanizazio eta oinezkoentzat egiteko lanak 6
Terminadas las obras de peatonalización y urbanización en Astillero y Osio

- Onartu da Amillaga birgaitzeko plan berezia 8
Aprobado el Plan Especial de reforma de Amillaga

- Miramar hotela zegoeneko orubea urbanizatu egin da oinezkoen erabilera publikorako 10
El solar del antiguo Hotel Miramar urbanizado para uso público peatonal

- Eguneko Zentrorako sarbidea / Acceso al Centro de Día 11

- Angulero kalea urbanizatzea eta errepideko espaloia egitea 12
Urbanización de la calle Angulero y acera de la carretera

- Kasinoa: A.E.N.A.k (Espainiako Aireportuak) aldeko txostena idazteko zain 13
Casino: a la espera del informe favorable de A.E.N.A.

- Aisia Kresala hotelaren egoerari buruzko informazioa 15
Información sobre la situación del hotel Aisia Kresala

- Etxeko suteen prebentziorako eta gizarte-beharrak hautemateko programa 16
Programa de prevención de incendios domésticos y detección de necesidades sociales

- Deba-Arte Eskolako Eskulangintzarako Irakaskuntza Zentroaren etorkizuna 18
Sobre el futuro del Centro de Enseñanzas Artesanales de Deba-Arte Eskola

- Udal kirola. Jarduera fisikoa sustatzea Deban 24
El deporte municipal. Promoción de la actividad física en Deba

- Feder Arte - Debarock. Musika eta Euskal Surf Kultura 26
Feder Arte - Debarock. Musika y Euskal Surf Kultura

- Zikloturisten ibilaldia kostako euskal baleontzietan zehar 27
Ruta cicloturista por la costa de los balleneros vascos

- Ondar Fest. Euskal Surf Sup Race zirkuitua 27
Ondar Fest. Circuito Sup Race Euskal Surf

- Debako Euskararen historia soziala 28

- Euskaraldia 28

- Debako familia, haur eta nerabeen arreta eta babesa indartzen 29
Fortaleciendo la atención y la protección a las familias, niñas, niños y adolescentes de Deba

- Debako I. Eskultura lehiaketa / I. Concurso de Escultura de Deba 30

- Zer da Gaztelekua? / ¿Qué es el Gazteleku? 31

Duela gutxi gertatutako ezbeharraz hitz egin beharra dago editorial honetan, jakina: zubiaren zati bat erori eta zubia itxi egin da.

Udal hau nahiz Mutrikukoa aurreneko momentutik bertatik mugitu ziren konponbide teknikoak eta pertsonalak bilatzeko asmoz, hau da, zubiaren egiturak berak eskatzen zituen konponbide teknikoak eta Urasandi auzoan bizi diren familia guztiei eman beharreko konponbideak bilatzeko; familia kopurua handia da, gainera.

Aurreneko asuntoari dagokionez, esan behar da Udal honek jadanik jaso duela lehen txosten teknikoa zubiaren egoerari buruz. Txostena premia handienaz egin dute INGELAN S.L. eta FHECOR Ingenieros Consultores enpresek.

Urasandiko auzotarrei dagokienez, Udalak jakinarazi nahi du hitz egiten ari dela Lurraldebusekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, bi ibaiertzen arteko garraioaren arazoa lehenbailehen konpon dadin.

Udal honek garraioaren arazoa berehala konponduko dela espero du; baina, badaki, era berean, gertatutakoa larria dela eta denbora beharko dela ezbeharrak eragindako kalte teknikoak eta pertsonalak konpontzeko. Horregatik, zubiaz beste aldean bizi diren guztiei arren eskatzen die pazientzia izateko eta jakinarazten die aldian-aldian gestioak nola doazen azalduko diela, obrekin eta auzotarren ongizatearekin zerikusia duten gestioak alegia.



Como no podría ser de otra forma, se hace obligado tratar en este editorial sobre el desgraciado acontecimiento acaecido recientemente: la caída de parte del puente y el cierre del mismo.

Desde el primer minuto, tanto este Ayuntamiento como el de Mutriku, se movilizaron para buscar soluciones técnicas y humanas; esto es, las que afectan a la estructura del puente en sí, y las que afectan a todas la familias que habitan en el barrio de Urasandi, que realmente son numerosas.

En cuanto a lo primero, decir que este Ayuntamiento ha recibido ya un primer informe técnico sobre el estado del puente, realizado con la máxima urgencia por las empresas INGELAN S.L. y FHECOR Ingenieros Consultores.

En lo que respecta a los vecinos de Urasandi, el Ayuntamiento desea informar que se está tratando con Lurraldebus, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, de forma que pueda solucionarse en breve el problema del transporte entre las dos orillas.

Este Ayuntamiento confía en la pronta solución del problema del transporte, pero es también consciente de que la gravedad del siniestro y la reparación de los daños técnicos y humanos ocasionados por éste llevarán su tiempo. Es por ello, por lo que pide encarecidamente paciencia a todos quienes habitan al otro lado del puente y se ofrece a informar periódicamente sobre el progreso de las gestiones, tanto de las obras, como las que competen al bienestar de los vecinos.

**Pedro Bengoetxea**
Alkatea/Alcalde

# Hobekuntza lanak

# Obras de mejora



Lan eta Zerbitzu Departamentuak hainbat jarduketa burutu berri ditu, zenbait lekutako irisgarritasuna hobetzeko eta errazteko. Jarduketak burutzeko, bi langile kontratatu dira sei hilabeterako, udal lantaldeari lanak pilatu egin zaizkiolako.

Kontratatu berriek zenbait espaloi konpontzen eta jaisten ariko dira besteak beste, mugikortasun murriztua duten pertsonei eroso gerta dakiekeen espaloietako igoerak-jaitsierak.

Atal honen barruan, era berean, anbulatoriorako sarbidean eginiko hobekuntzak aipatu behar dira. Hobekuntza lan horiek Lurkide enpresak egin ditu, 15.351€-ko aurrekontuarekin.

Itziarri dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea hilerriko kaperan eginiko hobekuntzak. Udal lantaldeko kideek bi hilabete behar izan dituzte hobekuntzak egiten.





El Departamento de Obras y Servicios ha realizado en fechas aún recientes una serie de actuaciones con el fin de mejorar y facilitar la accesibilidad a ciertos lugares. Debido a la acumulación de tareas del personal de la brigada municipal, a finales del año pasado se procedió a la contratación, durante seis meses (hasta el pasado mes de mayo), de dos operarios que ayudaron a paliar esa falta de personal.

Entre otras acciones, los contratados se dedicaron a labores como el arreglo y rebaje de ciertas aceras, lo que facilitará el acceso a las mismas a personas con movilidad reducida.

También dentro de este capítulo, mencionar las mejoras realizadas en el acceso al Ambulatorio, obra realizada por la empresa Lurkide, con un presupuesto de 15.351€.

En lo que respecta a Itziar, es importante resaltar las mejoras realizadas en la capilla del cementerio, cuya ejecución por el personal adscrito a la brigada municipal se ha prolongado durante dos meses.





Itziarko udalez peko erakunde barruan, hobekuntzak egin dira Salegi jatetxearen aparkalekuko hondakinen bilgunean, birziklapena bultzatzeko asmoz. Hobekuntzak 6.485€ kostatu dira.

También dentro de la Entidad Local Menor de Itziar, y concebida como una medida para impulsar el reciclaje, se han realizado mejoras en el punto de recogida de basuras sito en el parking del restaurante Salegi, cuyo coste ha ascendido a 6.485€.



Energia aurreztera bideratutako ekintzen atalean, Santa Maria elizaren kanpoaldeko argiztapena hobetu egingo da. Eginiko kalkuluen arabera, argiztapena aldatzen bada, %80ko energi aurrezpena lortuko da. Gainera, aldaketa horiei esker, monumentu garrantzitsu horren argiteria eta itxura hobetuko dira. Lan horien aurrekontua 50.000 eurokoa da.

Bigarren faseak 15.000 euroko aurrekontua izango du eta Plaza Zaharreko argiztapena aldatuko da. Horretarako, egungo kontsumo altuko farola alogenoak aldatuko dituzte eta Led teknologia dutenak jarriko dituzte, esparru historiko honen itxurarekin bat etorriz.

En el capítulo referente a las acciones encaminadas al ahorro energético, se va a proceder a la mejora de la iluminación exterior de la iglesia de Santa María. Se ha calculado que el cambio de iluminación supondrá un ahorro energético del 80%. Además, los cambios implicarán una mejora en lo que respecta a la iluminación y estética del emblemático monumento. El importe presupuestado para estos cambios es de 50.000€.

En una segunda fase, con un presupuesto de 15.000€, se procederá al cambio de la iluminación de la Plaza Zaharra, sustituyendo las actuales farolas alógenas de alto consumo por otras de tecnología Led y una estética mucho más acorde con ese histórico espacio.

# Amaitu dituzte **Astillero eta Osioko** urbanizazio eta oinezkoentzat egiteko lanak

## Terminadas las obras de peatonalización y urbanización **en Astillero y Osio**





Gurutze eta Osio arteko Astillero kaleko lanak amaitu ondoren, zati hori oinezkoentzat izango da eta soilik bertako garajeetara sartzeko erabili ahalko da. Horri esker, oinezkoen sarbidea erraztuko zaie bertako eta Osioko bizilagunei; izan ere, hirigunera joan ahalko dute ibilgailuek eragotzi gabe eta lehentasuna ematen zaie oinezkoei.

Lur azpiko instalazio guztiak birgaituko dira eta erabilera berrirako egokia den zoladura berria jarri da. Lurzorua berdintzen saiatu dira, atalondo gehiagotara iritsi ahal izateko eta mugikortasun urriko pertsonen ibilbidea zailtzen duten eskailera kopurua ere murriztu da. Maldagatik zailena izan den zati horretan, alboko espaloi bat eraiki da altzairu herdoilgaitzez eginiko baranda-eskudel batekin babestuta.

Argiztapen berria ere jarri da, kontsumo baxuko led lanparekin, bidea argitzeko eta argi guztia zerurantz joan dadin saihesteko. Izan ere, beharrezkoa ez den energia kontsumoa da, argi-kutsaduraren aurkako arau zorrotzenei jarraikiz.

Una vez terminadas las obras de la calle Astillero entre la Cruz y Osio, este tramo de la calle ha quedado destinado exclusivamente al uso de peatones y al acceso a los garajes en ellas situados. Con ello, se facilita el acceso a pie y sin molestias de vehículos a los residentes en esta calle y en Osio hasta el resto del núcleo urbano, y se da prioridad a las personas sobre los vehículos a motor.

Las obras han consistido en la reforma total de las instalaciones subterráneas, y en una nueva pavimentación adecuada al nuevo uso. Se ha procurado nivelar el suelo para dar acceso al mayor número de portales, reduciendo el número de escalones que dificulten el tránsito de personas con movilidad reducida. En el tramo de mayor dificultad por su pendiente, se ha construido una acera lateral protegida con barandilla pasamanos de acero inoxidable.

Se ha instalado una nueva iluminación con lámparas tipo led de bajo consumo, orientadas a iluminar la calzada evitando que el flujo lumínico se dirija hacia el cielo, puesto que origina un consumo de energía innecesario, en conformidad con las normas más estrictas contra la contaminación lumínica.



San Josepeko Gurutzearen inguruan eskailera, zoladura eta hormak birgaitu dira kareharriarekin, eta baranda berriak jarri dira.

Ibilgailuen sarbidean (soilik garajeetara eta baimendutakoak) matrikula irakurtzen duten kamerak jarri dira irteeran eta sarreran. Bizilagunen batek bertatik igaro beharko balu ezinbestean, Udaltzaingoari jakinarazi beharko dio momentuan eta 24 ordu lehenago.

Osio kalean espaloia zabaldu da pertsonen eta gurpildun aurkien mugikortasuna hobetzeko, eta atalondoetarako sarbideekin berdindu da, ahal izan den heinean. Kale osoaren asfaltoa berritu eta, oinezkoen pasabide bat eta aparkalekuak seinaleztatu dira.

Halaber, argiztapen berria jarri da eta lur azpiko instalazioak (ura, saneamendua, elektrizitatea, eta abar) berritu dira.

Hasiera batean, obrak lau hilabeteko iraupena izatea aurreikusi zen, baina azkenean sei hilabete eta erdikoa izan da; izan ere, gas- eta telefono-harguneak jarri dira hainbat eraikinetan eta lan horiek ez zeuden aurreikusita. Euriak ere trinkotze- eta lehortze-prozesua oztopatu ditu eta hiru aste baino gehiagoz ezin izan da amaierako asfaltoa jarri. Obra esleipenaren aurrekontua 329.883,13 eurokoa izan da, BEZ barne.

En el entorno de la Cruz de San Josepe se ha reconstruido la escalera, el pavimento y los muros con piedra caliza, y se han instalado nuevas barandillas.

El acceso de vehículos, solamente a garajes y autorizados, ha quedado regulado por medio de cámaras de lectura de matrícula instaladas en la entrada y salida de la calle. Si algún vecino precisa acceder a la zona por razones de fuerza mayor, deberá justificarlo a la Policía Municipal en el momento o antes de 24 horas.

En la calle Osio, las obras han consistido en el ensanchamiento de la acera para mejorar la movilidad de las personas, incluso de las sillas de ruedas, y nivelar su piso en lo posible a la entrada a portales. Se ha realizado un nuevo asfaltado de toda la calle y se han señalizado un paso peatonal y los aparcamientos.

Asimismo, se ha instalado una nueva iluminación y se han reconstruido las instalaciones subterráneas, agua, saneamiento, electricidad, etc.

La duración de las obras se han alargado desde los cuatro meses inicialmente previstos a los seis y medio, debido a que se han instalado acometidas de gas y telefonía a edificios que no disponían de ellas y que en un principio no estaban previstas, y a la lluvia, que ha entorpecido los procesos de compactado y secado, y ha impedido durante más de tres semanas el asfaltado final. El presupuesto de adjudicación de la obra ha sido de 329.883,13 euros, I.V.A. incluido.

# ONARTU DA AMILLAGA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIA



# APROBADO EL PLAN ESPECIAL DE REFORMA DE AMILLAGA



Udalak berriki onartu eta jendaurrean ikusgai jarri du Amillagako hegalaren antolamendurako plana. Gaur egun, Ingurumen Inpaktuaren Azterlana egiten ari dira.; zona horri buruzko lehen plana 2008an onetsi zen, eta aldatu eta hobetu egin da.

Funtsean, goiko errepide bat da, Mogel kalearen jarraipena (Agirretxe-Eliz-buru), eta zig-zagean jaisten da eta errepidera iristen da biribilgune baten bidez lotuz. Horri esker, Agirretxe-Elizburu-Amillaga zirkuitua osatuko da eta ibilgailuak N-634 errepidera atera ahalko dira.

Amillagako goiko aldean Elizburun eraikitzen ari diren mota bereko eraikinak aurreikusi dira: beheko solairua eta bost solairua. Gainontzean, beheko solairua eta beste lau solairuko etxebizitzak eraikiko dira.

Guztira, 176 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da eta horietatik 38 tasatuak izango dira, % 20a, hain zuzen. Sustatzaileek Udalari lagako dioten urbanizatutako lursail batean eraikiko dira.

238 garaje pribatu eta erabilera publikoko beste 97 (kanpoan) eraikitzea proiektatu da. Igogailu publikoak jarriko dira eremu berri horretara, eta Itsasbegi eta Elizburura iritsi ahal izateko.

Ingurune hori garatzean, hilerria tokiz aldatu beharko da eta, Udalak erabaki zuen bezala, Artzabalen jarriko da. Libre geratuko den azalerari erabilera publikoa emango zaio eta, zati horrekin eta beste udal lursail batzuekin batera, Udala esparru horretako lurzoru pribatuaren % 13aren jabe izango da.

El Ayuntamiento ha aprobado y expuesto al público recientemente el Plan de ordenación urbana de la ladera de Amillaga. Actualmente, se está realizando el estudio de Impacto Medio Ambiental. Sobre esta zona existía un primer Plan aprobado en el año 2008, que ha sido modificado y mejorado.

Básicamente, consiste en un vial superior, continuación de la calle Mogel (Agirretxe-Elizburu) que desciende en zig zag, para llegar a la carretera conectando por medio de una rotonda. Con ello, se completará el circuito Agirretxe-Elizburu-Amillaga- y se dará salida a los vehículos a la N-634.

En la parte alta de Amillaga se han previsto edificios del mismo tipo que los que actualmente se están construyendo en Elizburu, con planta baja y 5 alturas, y en el resto de planta baja y 4 alturas.

En total, se prevén del orden de 176 viviendas, de las cuales 38 serán tasadas, es decir el 20%, que se ubicarán en un solar que los promotores deben ceder al Ayuntamiento completamente urbanizado.

Se proyectan 238 plazas de garaje privadas, y 97 de uso público en el exterior. Ascensores públicos facilitarán el acceso a toda la nueva área que se ordena, así como a Itsasbegi y Elizburu.

El desarrollo de esta zona requiere el traslado del cementerio, que como ya acordó el Ayuntamiento, se efectuará a Artzabal. La superficie que quede libre se destinará a espacio público; con ella y varias parcelas municipales más, el Ayuntamiento será propietario del 13% del suelo privado de esta área.

# MIRAMAR HOTELA ZEGOENEKO ORUBEA
## URBANIZATU EGIN DA OINEZKOEN ERABILERA PUBLIKORAKO

# EL SOLAR DEL ANTIGUO HOTEL MIRAMAR
## HA SIDO URBANIZADO PARA USO PÚBLICO PEATONAL



Udalak berriki sinatu du hitzarmen bat ISGA enpresarekin (Laboral Kutxaren filiala eta Miramar hotela zegoeneko orubearen jabea); hotela 2011. urtean eraitsi zen eta, hitzarmen horren bitartez, aldi baterako lagako dio erabilera oinezkoentzat eta erabilera publikorako. Asfaltoaren kostuak bere gain hartu ditu eta perimetroan zehar hesi bat egin du lorategi gisa jartzeko. Aurrealdean, errepide aldera, bateriako aparkamendurako bi lerro gaitu dira.

Udalak, bere aldetik, hiri-altzariak eta lorategia egin ditu, eta bera arduratuko da mantentze- eta garbiketa-lanez. Egokitze-lanak xumeak dira; izan ere, jabea den enpresak ez die bere 700 $m^2$-ko lursailean eraikitzeko eskubideei uko egiten.

El Ayuntamiento ha firmado recientemente un Convenio con la empresa ISGA, filial de Caja Laboral Popular y propietaria del solar que ocupó el hotel Miramar, que fue demolido en 2011, por el que la propiedad cede temporalmente el uso de este espacio para uso exclusivamente peatonal y público. Lo ha asfaltado a su costa y ha realizado en su perímetro una franja preparada para ser ajardinada. En el frente, hacia la carretera, se han habilitado dos líneas de aparcamiento en batería.

El Ayuntamiento, por su parte, ha instalado el mobiliario urbano y la jardinería, y se ocupará de su mantenimiento y limpieza. Las obras de acondicionamiento son sencillas, puesto que la empresa propietaria no renuncia a sus derechos de construir en este solar de 700 $m^2$ de superficie.

# MARTXAN DAUDEN PROIEKTUAK
# PROYECTOS EN CURSO



## EGUNEKO ZENTRORAKO SARBIDEA

Gaur egun, Jubilatuen Egoitzako bigarren solairuan kokatzen den Eguneko Zentrora igogailua edo eskailerak erabiliz iritsi daiteke eta, horrek, asko zailtzen ditu ebakuazioak larrialdietan; izan ere, zerbitzu horretan dauden pertsona adindunek mugikortasun urria dute.

Arazo hori konpontze aldera, sarbide zuzen bat egiteko proiektua idazten ari dira eta, aldi berean, ebakuazioetarako irteera eta sarrera nagusia eta independentea izango dira.

Proiektu horren bitartez, estalitako pasabide bat egingo da eraikinaren atzealdea eta Agirretxera doan igoera lotuko dituena, igogailu publikoaren goiko kabinaren ondoan.

Pasabidearen sarrerara Eguneko Zentroko adindunak garraiatzen dituen furgonetan iritsi ahalko dira eta, gainera, erraz eta azkar ebakuatu ahalko dira zuzenean kanpora.

Hala, Debako Udala kezkatzen duen pertsonen segurtasunaren arloko arazo garrantzitsu bat konpontzen da.

Pasabide horren lanak datorren udazkenean abiaraztea aurreikusten da.

## ACCESO AL CENTRO DE DÍA

El acceso al Centro de día, que se encuentra en la segunda planta del edificio del Hogar del Jubilado, se realiza actualmente por un ascensor o por escaleras, lo que presenta dificultades de evacuación en caso de emergencia debido a la movilidad reducida de las personas mayores que son atendidas en este servicio.

Para resolver este importante problema, se está redactando el Proyecto de Ejecución de un nuevo acceso directo que sea simultáneamente salida de evacuación y entrada principal independiente del resto del edificio.

El proyecto consiste en una pasarela cubierta que desde la fachada posterior del edificio conecte con la subida a Agirretxe, junto a la cabina superior del ascensor público. Hasta la entrada de esta pasarela podrá llegar la furgoneta que transporta a los mayores al Centro de Día, y por ella podrán ser evacuados con facilidad y rapidez directamente al exterior.

De esta forma, se resuelve un importante problema de seguridad para las personas, que preocupa al Ayuntamiento de Deba. Se espera iniciar las obras de esta pasarela en el otoño próximo.

# ANGULERO KALEA URBANIZATZEA ETA ERREPIDEKO ESPALOIA EGITEA

## URBANIZACIÓN DE LA CALLE ANGULERO Y ACERA DE LA CARRETERA



Angulero kalea da hirigunera eta Agirretxara doan kale nagusia, eta kamioien trafiko ugaria jasaten du. Lurrak ez du ongi jasaten ibilgailu horiek bertatik igarotzea eta zuloak sortzen dira; bata bestearen gainean bota diren asfalto kapak ez dute arazoa konpondu eta errepidea espaloiak baino gorago dago orain.

Akats horiek zuzentze aldera, berrurbanizazio proiektu bat idazten ari dira; horren bitartez, egungo lurzorua altxatu eta berri bat egingo da, gogorragoa. Halaber, espaloiak eta instalazioak berrituko dira, bai eta argiztapena ere.

Kale horretako ibilgailuen zirkulazioa ez mozteko, lehenik eta behin, kalearen erdian egingo dira lanak eta ibilgailuak beste erditik igaroko dira; lan horiek amaitu ostean, berdin jardungo dute beste aldearekin. Obrak urtea amaitu aurretik abiarazi nahi dira.

Proiektuan bertan hainbat irregulartasun eta errepide ondoko espaloietako maila desberdinak zuzendu nahi dira, Agirreko jauregiaren eta Gaztetxearen artean. Espaloiko maila desberdinek oinezkoan zirkulazioa mugatzen dute, bereziki karroak edo gurpildun aulkiak dituztenei; izan ere, Astillero kaletik ibiltzera behartuta egoten dira.

La calle Angulero es la principal calle de acceso al casco urbano y a Agirretxe, y soporta un tráfico intenso y frecuente de camiones. Su firme no resiste bien este paso de vehículos y por ello se forman continuos baches; las continuas capas de asfalto que se han echado una sobre otra no han resuelto el problema y han elevado el nivel de la calzada sobre el de las aceras.

Para subsanar estas deficiencias, se está redactando un proyecto de reurbanización que incluye levantar todo el firme actual y la construcción de uno nuevo, suficientemente resistente, así como la renovación de las aceras e instalaciones, incluido un nuevo alumbrado.

Para evitar cortar la circulación de vehículos en esta calle, primero se trabajará en la mitad del ancho de la calle dando paso por la mitad restante, y una vez terminado este lado, se trabajará de forma inversa. Se desea iniciar las obras antes de fin de año.

Dentro del mismo proyecto, se está estudiando corregir las irregularidades y las distintas alturas de la acera junto a la carretera, entre el palacio de Agirre y el Gaztetxe. Los continuos desniveles de esta acera limitan de forma importante la circulación de los peatones por ella, sobre todo si portan carros o se mueven sobre sillas de ruedas, de forma tal que se ven obligadas a caminar por la calle Astillero.

# KASINOA: AENAk (Espainiako Aireportuak) aldeko txostena idazteko zain




Eraiki behar den eraikin berriaren infografia - Infografía del nuevo edificio a construir.

# CASINO: A la espera del informe favorable de A.E.N.A. (Aeropuertos Españoles)

Kasinoaren eraikina aspalditik hutsik dago eta Udalak kontsulta asko jaso ditu etorkizuneko erabilerei buruz erosi duen eraikuntza-enpresaren aldetik.

Kasinoa ez dago babestuta Debako hiri-antolamenduan paisaia- edo arkitektura-intereseko eraikin gisa. Soilik kanpoko itxura eta egungo eraikinaren bolumetria mantentzea gomendatzen da.

Sobre el edificio del Casino, desocupado desde hace varios años, el Ayuntamiento ha recibido consultas sobre las posibilidades de uso futuro, por parte de una empresa constructora que finalmente lo ha comprado.

El Casino no está protegido como edificio de interés arquitectónico ni paisajístico en la ordenación urbana de Deba, aprobada en 2007 y actualmente en vigor con carácter legal. Solamente se recomienda mantener la imagen exterior y la volumetría que actualmente presenta este edificio.

Udalak gai hau lantzen urte bete igaro du, kontserbatze-mailarik handiena lortzeko eta hondartzaren aurrealdea osatzen duten eraikin-multzoaren itxura mantentzeko. Kontsultak egin ditu, zehazki, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Ondare Historikoko Sailekin eta biek Udalak hartu duen erabakia gomendatzen zioten.

Udal arkitektoak eraikinaren egoeraren ikuskapen xehatua egin zuen eta txostenean jaso zuen egituraren eta kanpoko hormen oinarrien egoera txarra dela eta, hortaz, barrualdeak eta kanpoko fatxadak ezingo dira kontserbatu.

Eraikina eraitsiko da eta Udalak sustatzaileei eskatu die Kasino berriak zaharraren kanpoko itxura, bolumetria, diseinu, material, harri eta kolore berak izan ditzan. Halaber, sustatzailek derrigorrean beheko solairuan taberna-jatetxe bat jarri beharko dute.

Ezinbestekotzat jo da taberna-jatetxea kalearen maila berean jartzea irisgarritasuna ahalbidetzeko, eta erabilera eta hondartzako pasealekuaren lotura eskaintzeko. Bestetik, etxebizitzen bi solairu eraikiko dira eta fatxadaren diseinua egungo Kasinoaren berdina izango da; hegalaren altuera ere berdina izango da.

Udalak ondorioztatu du ez dagoela beste irtenbide bideragarririk eraikinaren egoera txarra saihesteko eta erortzeko zorian dagoen eraikin batean bilakatu ez dadin, hondartza dauden beste asko bezala.

Erabilera horiek zehazte aldera, Arau Subsidiarioen xedapen-aldaketa egin da eraikin horri dagokionean. Aldaketa hori aho batez onartu zen 2017ko maiatzaren 25ko osoko bilkuran eta jendaurrean ikusgai jarri zen jarraian. Soilik alegazio bat aurkeztu zen epe horretan, enpresa sustatzailearena, testuan aurkitu zuen akats bat zuzentzeko eskatuz.

Orain, AENAren (Espainiako Aireportuak) aldeko txostenaren zain daude; izan ere, ezinbestekoa da Debako hiri-antolamenduko Arau horien edozein aldaketa egiteko, gure udalerria Hondarribiko aireportuko hegazkinen hurbiltze-eremuan dagoelako.

El Ayuntamiento ha tratado durante cerca de un año este asunto, buscando el mayor grado de conservación y tratando de mantener la imagen del conjunto de edificios que forman el frente de la playa. Ha realizado consultas, en concreto, a los departamentos de Patrimonio Histórico de la Diputación y del Gobierno Vasco, y ambos han recomendado la misma decisión que finalmente ha tomado el Ayuntamiento.

El arquitecto municipal realizó una inspección detallada del estado del edificio, informando del mal estado de la estructura y de los muros exteriores en sus bases, lo que impide la conservación del interior y de las fachadas exteriores.

El edificio va a ser demolido y el Ayuntamiento ha exigido a los promotores de la nueva edificación reconstruir el Casino con la misma imagen exterior, volumetría, diseño, materiales, piedras y colores. También los promotores deben destinar obligatoriamente la planta baja a bar restaurante.

Se ha considerado necesario que la planta de bar restaurante se sitúe a nivel de calle para permitir la accesibilidad a este local, y para favorecer su uso y su conexión con el paseo de la playa. Sobre esta planta baja se construirán dos plantas de viviendas con el mismo diseño de la fachada que la del actual Casino, manteniendo también la misma altura del alero.

El Ayuntamiento ha llegado al convencimiento de que no existe otra solución viable para evitar que el edificio continúe degradándose y se convierta en una ruina, otra más en el paseo de la playa.

Para determinar estos usos se ha realizado una Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias en lo que afecta a este edificio, que fue aprobada por unanimidad en el Pleno del Ayuntamiento del 25 de mayo de 2017. Esta decisión fue expuesta al público seguidamente, habiéndose presentado solamente una alegación, la de la empresa promotora por un error en el texto.

En estos momentos, se está a la espera del informe favorable de AENA (Aeropuertos Españoles), puesto que es necesario para cualquier Modificación de las citadas Normas de Ordenación Urbana de Deba, debido a que parte de nuestro termino municipal se encuentra en el cono de aproximación de los aviones al aeropuerto de Hondarribia.

# AISIA KRESALA HOTELAREN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA
# INFORMACIÓN SOBRE LA SITUACIÓN DEL HOTEL AISIA KRESALA



Aisia Kresalak ateak itxi zituen 2016ko azaroan eta hartzekodunen konkurtsoan sartu zen. Orain, titularra esleipendun talde bat da eta gehiengoduna Banco Santander da.

Ordutik, eraikinaren zahartzea bistakoa da. Dena den, jabeak salatzen ez badu eta epaile batek hustea agintzen ez badu, Udalak ezin du ezer egin. Hurrengo hilabeteetan, Udalak hainbat bilera egin zituen Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, laguntza bilatzeko eta egoerari irtenbidea emate aldera.

2017ko ekainean eta uztailean, Udalak hainbat inbertitzaile interesdunen mezuak jaso zituen eta Banco Santanderri kexak igorri zizkion hoteleko sarbideak itxi zitzan, eraikinean inor indarrez ez sartzeko eta edozein istripu saihesteko. Hilabete horietan, udaletxeak hainbat salaketa jarri zituen Ertzaintzan eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean, hotel zaharraren uzte eta osasungaiztasun egoera salatuz.

Hurrengo hilabeteetan, irailean eta urrian, Udalak bankuari jakinarazi zion bertan jendea bizi zela eta sarbide guztiak ixteko eskatu zion.

Banco Santanderren erantzun egokirik jaso ez zuenez, eta honek eraikina husteko agindu bat eskatzeko salaketarik jarri ez zuenez, Udalak eta Ertzaintzak egoera normalizatu ahal izateko, 2017ko abenduan Udalak egikaritze subsidiarioko agindua eman zuen eraikinaren perimetroa ixteko. Baina aurtengo otsailean alkate jauna Santander Bankuko mantentze- eta segurtasun langileekin bertaratu zenean eraikina hustu eta ixteko, bertan zeuden agintariek jakinarazi zieten epailearen agindu bat behar dela hori egin ahal izateko.

Bankuak salaketa bat jarri zuen Ertzaintzan martxoan eta, egun, Debako Udala husteko aginduaren zain dago. Hori jasotakoan, berehala hustuko du eta Aisia Kresala hotel zaharreko sarbide eta perimetroa itxiko ditu.

El Hotel Aisia Kresala cesó su actividad en noviembre de 2016, entrando en concurso de acreedores y pasando su titularidad a un grupo de adjudicatarios, en el cual el mayoritario era el Banco Santander. A partir de entonces, la degradación del edificio ha sido palpable. Sin embargo, hay que precisar que si no hay una denuncia de su propietario y una orden del juez autorizando su desalojo, la actuación del Ayuntamiento no es  posible. En los meses siguientes, el Ayuntamiento asistió a una serie de reuniones con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el objetivo de buscar apoyos y dar una salida favorable a la situación.

En los meses de junio-julio de 2017, a la vez que el Ayuntamiento empieza a recibir noticias sobre el interés de distintos inversores, remite quejas al Banco Santander para que cierren los accesos al hotel, con el objetivo de evitar los allanamientos y poder evitar de esa manera cualquier tipo de incidentes que pudieran ocurrir. En estas fechas, el consistorio interpuso denuncias ante la Ertzaintza y el Dpto. de Sanidad del Gobierno Vasco, en referencia al estado de abandono e insalubridad del antiguo hotel.

En los siguientes meses, septiembre y octubre, el Ayuntamiento informa al Banco que hay gente viviendo de manera habitual en el edificio y se le exige el cierre de todos los accesos.

Al no recibir respuestas satisfactorias por parte del Banco Santander, ni tener constancia de ninguna denuncia solicitando una orden de desalojo que habilitara al Ayuntamiento y a la Ertzaintza a llevar a cabo las acciones necesarias para normalizar la situación, en diciembre de 2017,  el Ayuntamiento lleva a cabo una orden de ejecución subsidiaria para acometer el cierre perimetral del edificio. Pero cuando en febrero del presente año acude el Sr. Alcalde con personal de mantenimiento del Banco de Santander y personal de seguridad a llevar a cabo el desalojo y cierre del edificio, las autoridades presentes les informan de que sólo pueden llevar a cabo el desalojo en caso de presentar una orden judicial.

El Banco ha interpuesto una denuncia ante la Ertzaintza en el mes de marzo, y a día de hoy el Ayuntamiento de Deba está a la espera de la orden de desalojo dictada por el juez correspondiente para, una vez recibida, llevar a cabo el desalojo inmediato y el cierre de los accesos y el perímetro del antiguo Hotel Aisia Kresala.

# Etxeko suteen prebentziorako eta gizarte-beharrak hautemateko programa

## Programa de prevención de incendios domésticos y detección de necesidades sociales

Zahartze-tasaren etengabeko igoera dela eta, Debako Udalak pertsona adindunei arreta emateko zerbitzuen plangintza egin behar du. Hori dela eta, irailean martxan jarriko dira jarraian aurkeztuko ditugun bi programa hauek:

**1.- ETXEKO SUTEEN PREBENTZIOA**

SOS DEIAKen azken datuek agerian uzten dute etxeko istripuetan, 10etik 8, suteak direla, eta mugikortasun urriko pertsona adindunak ahulenak dira horrelakoetan. Mugikortasun urriko pertsonak dira eta deskuidu baten erruz sute bat jasateko arrisku gehien dute. Zentzumenen aldaketak direla eta, denbora gehiago behar izaten dute konturatzeko eta erreakzionatzeko.

Pertsona adindunak beraien etxebizitzetan segurtasunez bizitzeko aldia ahalik eta gehien luzatze aldera, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak baimendutako Suteen aurkako Babeserako Enpresa baten bitartez, Debako Udalak martxan jarriko du proiektu bat, bakarrik edo beste adindun batzuekin bizi diren 75 urtetik gorako etxebizitzetara bideratuta. Deban bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako 160 biztanle daude, eta 58 etxebizitza 75 urtetik gorako bi edo pertsona gehiagorekin. Aurreikuspena da programa hau Debako 225 etxebizitzetan garatu ahal izatea.



El continuo aumento de la tasa de envejecimiento obliga al Ayuntamiento de Deba a una planificación de servicios para la atención de las personas mayores. Por ello, en el mes de septiembre darán comienzo estos dos programas que presentamos a continuación.

**1.- PREVENCIÓN DE INCENDIOS DOMÉSTICOS**

Los últimos datos de SOS DEIAK evidencian que 8 de cada 10 accidentes domésticos son incendios, y las personas ancianas con movilidad reducida son los individuos más frágiles. Se trata de personas mayores con movilidad reducida y con más riesgo potencial de sufrir un incendio por un descuido. Debido a alteraciones sensoriales suele costarles más darse cuenta de que algo pasa y tardan más tiempo en reaccionar.

Con el propósito de alargar lo máximo posible la estancia de la persona mayor en su propia vivienda de forma segura, a través de una Empresa Autorizada de Protección contra Incendios por el Departamento de Industria del Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Deba va a poner en marcha un proyecto enfocado a las viviendas de aquellas personas que tengan más de 75 años que vivan solas y/o acompañadas por personas también mayores de 75 años. En Deba hay 160 personas mayores de 75 años que viven solas y 58 viviendas donde viven dos o más personas mayores de 75 años. La previsión aproximada va a ser que se pueda desarrollar este programa en 225 viviendas de Deba.





Programak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Etxebizitzetan egon litezkeen arriskuak aztertu, ebaluatu eta kudeatzea.
- Auto-babeserako argibideak ematea.
- Kea hautematen duten gailuak instalatzea. Kearen presentziaz ohartarazten dute soinu-alarma ozen baten bitartez.
- Etxebizitzen krokisak egitea.

**2.- GIZARTE BEHARRIZANAK HAUTEMATEA**

Behatoki bat garatuko da zuzenean ezagutu ahal izateko programa honetako adindunen beharrizanak, egon litezkeen beharrizan posible eta garrantzitsuenak aurreikusi eta prebenitzeko, eta 225 pertsonen ingurune fisiko eta soziala hobetzeko. Horretarako, etxebizitzetan informazioa jasoko da gizarte langileek egindako elkarrizketa egituratu baten bitartez. Langile horiek, elkarrizketa bakoitzaren txosten soziala idatziko dute eta bertan jasoko dituzte esku-hartzeko proposamenak eta Debako udalerriko adindunek beharrizan sozialei buruzko azterlan orokor bat (jasotako datuekin eta erabilitako materialarekin), bai eta esku-hartzeko taula bat ere.

Oro har, programa horien helburua da Deban zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei arreta ematea eta zailtasun gehien dituztenen bizi-baldintzak hobetzen saiatzea.

El programa abarca estos servicios:

- Análisis, evaluación y gestión de riesgos que puedan existir en las viviendas.
- Instrucciones particulares de autoprotección.
- Instalación de detectores de humo que avisan de la presencia de humo mediante una alarma sonora muy fuerte.
- Elaboración de croquis orientativos de las viviendas.

**2.- DETECCIÓN DE NECESIDADES SOCIALES**

De forma conjunta se desarrollará un observatorio para conocer directamente las necesidades de las personas mayores atendidas en este Programa, prever y prevenir las posibles y potenciales necesidades que se puedan producir y mejorar el entorno físico y sociales de 225 personas. Se desarrollará a través de una recogida de información en los propios domicilios mediante una entrevista estructurada realizada por profesionales del Trabajo Social, quienes emitirán Informes Sociales de cada entrevista con propuestas de intervención y un Estudio General de necesidades sociales de las personas mayores del municipio de Deba con los datos obtenidos y materiales utilizados, así como una Tabla de Intervención.

